

## Elea



pari iharra egin didazu, agorra. “Hartu *kalaxnikova* eta egin gura duzuna berarekin...”, hala mintzo zinen azken entregan, Ur. Arma hori suntsitu ezik, ardura uher bat jarri didazu esku baldarren artean. Ez bainuen soldaduzka egin piperpotoaren agindupean, ezta *miliekin* ere.

Amnesty International delakoak salatu du ezen munduan gehien barreiatu den fusila dela diozun hori. Ehun milioi ale dabilza bost kontinentetan zehar, baten eskuetan ez bada, besterenean. Errusiatik at, hamalau herritan fabrikatzen omen da; askotan, batere kontrolik gabe. Asmatzailea bera, Mikhail Timofieievitx, lotsaturik dabil, fusilekin egiten dituztenak direla eta.

Jakin dut, jakin, minutuan seihun bala jaurtitzeko dohaina duen horrek erremonteko pilotak frontisean eragiten duen hotsaren antzekoa egiten duela: kla-kla-kla. Jakin dut, jakin, hogeita lau eurotan saltzen dutela arma hori hainbat merkatu ilunetan.

Karachi-n, Benazir Bhuto satelite estatubatuarren segizioan ez ziren faltako, ba, arma horiek. Ezta Kurdistango mendi gorrietan ere. Errairik gabe, beti izango du norbaitek arma horien beharra sentitzeko tentaldia. Vienen nahiz Londresen... Texasen, Pekinen edo Baionan.

\* \* \*

Metro-txartel erabiliak baino zapalduago eta urratuago begitantzen zaizkit *kalaxnikorak* bisitatutako bazterrak, *parabelumak* goldatutakoak, Esperanza y Cía fabrikako morteroak inarrositakoak.

“Kala da gerra” entzun daiteke ekialdeko bailara batzuetan, azalpenik ez duen hori azaldu gura izaten denean. Ez du inork ulertzen gerra, baina “hala da gerra”. Zelakoa? Gordina. Ideala...

Hogeita hamazazpikoz galdera egin nionean, irakurketa zital eta amorratua egin zion guduari gure amona zaharrak:



J. I. Basterrvetxea

Errro

Apalategi

“fede merkea eta urrea, horixe dok gerrea”.

K. letrarekin hasi gara jolasean: konstituzioarekin transit-era hurbildu, *Herr K.*rekin hegaldatu, eta *kalaxnikov* fusilarekin lurreratu.

Nire hiztegian, “kuzkurto” da **k** delako horrekin hasten den azken elea. Eta **l** delakoarekin hasten den lehena “la”, alegia latin herrietan musikalako seigarren nota, germaniar herrietako “a” notaren parekoa.

Zurruna begitantzen zait **k** letra. Libreagoa **l** delakoa. *Kalaxnikova* baino, irekiagoa iruditzen zait *elea*. Alegiazko eta elurrezko lainoak iruditzen zaizkit ugalkorrakoak, kanoi-kateak eta kanibal-kantak baino.

*Libertatea galdatu* edo *Biba libertatea!* **L**rekin dira horiek.

\* \* \*

Eta, **l** letraren atzetik, **m** dator: madaria, magia, mamia, masusta...

Beste batzuen artean, “martxoa” dakar gure hiztegiak. Martxoa... urtearen hirugarren hilabetea, hogeita hamaika eguneko. Epaila. Martia.

Martxoa. Nafarroa Garaian eta Euskadin, hauteskundeak. Madrili begira. Kongresua. Senatua.

Delako Euskal Autonomia Erkidegoaren estatus politikoa jaso eta eraldatu gura duten alderdi politikorik horiek, Maltzaga historiko eta paradigmatoraino hurbiltzeko gauza izango al dira? Batera esan gura dut.

Mahai gainera jaurti dute jada proposamena. NaBai-ri begira jarri dira batzuk, ikusteko eta ikasteko. Beste batzuk, jazartzeko eta suntsitzeko. Uso zuriaren atzetik, bakezaleak zein chiztariak ibiltzen baitira.

Proposamena egin dute jada publiko. Erantzunak hasi dira azaleratzen. Denbora badago hitz egiteko. Gogoa... ezin jakin.

Hurrerako nahiz urru-nerako bidaietan, Angel, ez al da ekologikoagoa auto konpartitua? ■

K. letrarekin hasi gara jolasean: konstituzioarekin transit-era hurbildu, *Herr K.*rekin hegaldatu, eta *kalaxnikov* fusilarekin lurreratu